



BARREN

TOKIKOM

# Hazhe, hip-hop-a bihotzean



# Gida komertziala



BARREN

Elgoibarko eta Mendaroko gida komertziala prestatzen dihardugu. Zure enpresaren datuak gidan **DOAN** agertzeko aukera daukazu!

Datu-basea osatzeko zure laguntza behar dugulako, eskertuko genizuke gurekin harremanetan jartzea:

***gida@elgoibarkoizarra.eus***  
**644 765 640 / 943 743 704**

Interneten ere  
**bai!**





ANA ALBERDI



## “Non hartu ditzakegu etxea jantzeko ideiak?”

**K**aixo, Eneko. Moda kontuan beti aritu izan gara jantzien inguruan; pasarelak, ekoizpen prozesua, datorren denboraldiko *mustak*... eta kritikak. Baina gaur, beste ikutu txiki bat eman nahi diot gure atalari, eta moda kontu hauek dekorazioaren aldetik aztertu.

Gazteak gara, eta seguru nago bai guri eta bai gure adineko beste askori *independizatu nahi dut* esaldia askotan pasatu zai-gula burutik. Gure etxe propioa izateko nahia; askatasun puntu bat.

Jantzien antzera dekorazioa ere pauso erraldoietan eboluzionatzen ari den sektorea da. Gazteok, gainera, pertsona oso dinamikoak egin gara, eta ondorioz, dekoratzeko modua ere izugarri aldatu da azken urteetan; ezin uka dezakegu DIY (*Egin ezazu zeuk*) mugimendua. Pertsonalizazioa, eksklusibo-

tasuna eta eskuekin trebea izatea modan daude. Niri dago-kidanez etxe zuriak, minimalistak, egur ikutukoak, beige to-nuak, iledun alfonbrak... gustatzen zaizkit. Eta posible bada sukaldea eta egongela batuta egotea, lagun artean zerbezaz betetako afariak egin ahal izateko.

Baina non hartu ditzakegu ideiak?

Internetek dekorazioari dagokionez ideiak batzeko plata-forma eta sare sozial ugari sortu ditu, eta horien artean, adie-razgarriena Pinterest izan daiteke. Bertan ideia ezberdin ugari aurki ditzakegu, baita gure kabuz altzariak egiteko tu-torialak ere. Independizatzeko momentua urruti ikusten dudan arren, hasi naiz jada nire ideiak batzen, Eneko, eta zu? Bar-tzelonan zein Madrilen bizitakoa zara, non bilatzen duzu ins-pirazioa?



ENEKO ITURBE

## “Espazioak gauza gutxi eta neutroekin betetzen ditut eta elementu txikiekin kolorez jantzi”

**K**aixo, Ana! Munduko hainbat bazter eta txokotan bizi izan naiz, baina gaur Madrildik idazten dizut. Lana to-patu dut hemen, eta, noski, etxea ere aurkitu behar! Ez da lan erreza izan. Etxe ekonomikoa nahi nuen, eta az-kenean, pisu partekatatu batean amaitu dut, beste asko bezalaxe.

Pisua ikustera etorri nintzenean, logela hutsa zegoen. Ba, zer esango dizut! Ahalik eta altzari merkeenak erosi nituela eta orain hemen nabilela jo eta su logela goitik behera altzariz hornitzen.

Ziur nago gazte pila bati noiz edo noiz pasatu izan zaiola burutik etxetik joatea, baina hipoteken mamua ere beti presente egoten da horrelako kasuetan. Horregatik, gazte askok denbo-raldi batez alokatutako pisuetan egotea erabakitzen dugu, eta noski, gehiegi gastatzea ere ez da komeni izatea. Argi dagoena da, ordea, ez daukagula zertan diru asko xahutu behar pisu zein logela bat altzariz jantzeko: *low cost* almazenetan altzari merkeak eros ditzakegu, baita bigarren eskukoak ere, edo DIY mugimen-

dua jarraituz guk geuk ere egin ditzakegu hainbat lan.

Egia esan, ni ez naiz oso trebea horrelako gauzetan eta, ho-rrexegatik, ez naiz DIYaren oso aldekoa. Nahiago dut beste bide batzuegatik apustu egin, eta hauxe da egiten dudana: espa-zioak gauza gutxirekin eta kolore neutroekin betetzen ditut, eta elementu txikiak kolore biziz jantzen lortzen dut kontrastea. Edozer izan daiteke: landare bat, koadroak, lanparak, mantak, kuxinak... Azkenean, garrantzitsuena bakoitza bertan gustura sentitzea da!

Konturatu al zara gure aiton-amonen altzariak nolakoak diren? Bizitza guztirako balio duten altzariak erosten zituzten, baina hori guztiz aldatu da: dekorazio mundua, moda mundua bezala, ira-gankorra bihurtzen ari da, tendentziak oso azkar aldatzen dira.

Baina nik badaukat ideia bat: altzariak aldatu ordez, apain-garriak alda ditzakegu, eta horrela gelari beste itxura bat eman, diru asko gastatu gabe! Ideia ona ezta? Bien bitartean, amestu dezagun gure ametsetako etxearekin...

ANDER MUJIKA

Musikaria



## Plaza Handian

plazan jolasten genuenean beti izaten zela edadetu talde bat plazan alde bate-tik bestera pasiaran. Gu arku-tik arkura futboleko jolasten ibiltzen ginen bitartean, haiek joan-etorrian ibiltzen ziren frontoiti- eliza atarira, eta gure ondotik pasatzen ziren bakoitzean, errieta egiten ziguten jolasean ibiltzeagatik. Amorruren amorruez, nire buruari zin egin nion na-gusi egitean hurrei bakean jolasten utziko niela eta ni kalean gora eta be-hera ibiliko nintzela pasiaran. Izan ere, gure herria ez zegoen bereziki futbo-

*“Herriko plaza denona da, eta adin ezberdineko jendea elkarrekin bizi behar da, batzuen eta besteen espazioa errespetatuz”*

lean edo bestelakoetan jolasteko pres-tatuta, eta pasiaran egiteko, ordea, denok dakigu ez dela egitura handi edo berezirik behar.

Herriko plaza denona da, eta adin ezberdineko jendea elkarrekin bizi behar da, batzuen eta besteen espa-zioa errespetatuz, baina ez dut uste haurrak eta beraien jolasak espazio konkretuetara mugatzea modua denik. Haurren jolasak gure bizitzan eta ingu-ruan izateak bizia ematen die lekuari berari eta bertako egunerokoari.

Asko sentitzen dut adineko ema-kume horri gertatu zaiona, eta ulertzen dut bere ingurukoek errudun baten bila ibiltzeko beharra sentitzea gertatutako-aren amorruez. Baina hau ez da Donos-tia (eta eskerrak!) eta ezin dugu herri oso bat edadetuerosotasunerako egokitu. Pasiaran edo poteatzen ibil-tzen ez diren pertsonak dira haurrak, eta beraiena jolastea da, mendian, parkean eta baita plazan ere.

Urriaren 28ko alean BARRE-Nen argitaratu zuten herritar baten kexak biziki deitu zidan atentzioa. Honela zioen: *Urriaren 9an nire amaginarreba baloiarekin jo zuten Kalegoen plazan, eta ondorioz, lurrera erori eta kolpe handia hartu zuen. Aldaka eta sor-balda hautsi zituen [...].* Segidan emakumeari eta ingurukoek horrek suposatuziena azaltzen zuten kexan, eta Plaza Handian baloiarekin jokatzeko debekatzeko proposatzen zuten.

Memorian grabatuta daukat umetan



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Euzkaldun Leharren Erakundeak

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**  
943 744 112  
**Publizitatea: 943 743 704**  
**barren.publi@elgoibarkoizarra.eus**  
**barren@elgoibarkoizarra.eus**  
**www.barren.eus**

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragar-kiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zofoak Beleari eta eskutitzak ataletan adieraz-itakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Anaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabala-ga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurruxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iurbe, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien An-sola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Sorraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► OSABAREN OROIMENEZ (II)

Bagenekien biok elkarri  
elkarrekin egoten ginenean.  
Bukatzen dela, bai eta kitteda  
heriotza da diktadura!  
Baina *que nos quiten lo bailao...*  
bizitzaren gauzak dira.  
Korrikalari ezinhobea,  
Elgoibarri emandakoa.  
Pertsona ona, pertsona fina  
kostatuko zait aurkitzea.  
90 urte zituela  
Logroñoko kartzelara joan zen.  
"Arnaldo askatu" esaten zuen.  
Askatu laguna bera!  
*Larai, larai, larai, larai...*  
Hortan ere eredu!

Nire barnean dago zure aztarna,  
barru-barruan sartua.

Eta zurekin egoten nintzenean  
pertsona ona bihurtzen nintzen.

Euskal Herrian artista asko  
eta noski ospe handikoak,  
jakin ezazu, osaba Jose  
zerrenda hortan zaudela.

Zarata gutxi eta xume, xume  
txingurri txiki lanean

ibiltzen zinen eta lortzen zenuen  
guztion maitasuna.

Maiteminduta dagoena bizitzaz  
ezin egin besterik.

*Larai, larai, larai, larai...*

Hazi bat utzi... bai! eta joan...

Iloba Joxanek

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: birraok, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelezar datorren eskutitzak argitaratuko.

## Lagunduko al diguzu ELGOIBARKO IZARRAREN **TONBOLA** OSATZEN?

Elgoibarko Izarraren aldeko  
**TONBOLA**

Abenduak 24, 11:00etatik  
14:00etara, Kalegoen plazan

1.500 erregalu  
baino gehiago...

Aurreko hiru urteetan TONBOLAK izan duen estimazioak bultzatuta, aurten ere abenduaren 24an Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu Kalegoen plazan. Ehunka erregalu banatzea da gure desioa, baina horretarako zure laguntza behar dugu.

Animatuko zara tonbolarako erregalua ematera?

Animatzen bazara, esan ahal duzun azkarren tonbolarako erregalua emateko prest zaudela.

**Abenduaren 2a izango da.**

Harremanetarako:

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
943 744 112



## Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga eta zaborren tasa ez beste guztiak izoztu ditu Elgoibarko Udalak, EAJ eta PSE-EEren botoekin

Azken lau urteotan egin bezala, tasa eta zerga gehienak izoztea erabaki zuen joan zen astean Elgoibarko Udaleko udalbatzarrak, ordenantza fiskalak eguneratzean. EAJren proposamena izan zen, eta proposamenak PSE-EEren babesa jaso zuen. EHBilduko zinegotziak abstenitu egin ziren bozketan. Tasa eta zerga gehienak izozteko erabakia KPI kontsumo prezioen indizean oinarrituta hartu du udalbatzarrak. Abuztuan 0,1ekoa izan zen KPIa eta 0,3koa irailean; balore positiboak, baina "oso baxuak", eta horregatik jaso zuen EAJk proposamenean zerga eta tasak izoztea. "Elgoibarko Udalak zergadunen poltsikoak gehiago ez estutzea erabaki zuen aurrekoetan, eta baita orain ere", nabarmendu zuen Bittori Zabala Ongasun Saileko arduradunak. Hala ere, salbuespen bi egin dituzte: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ-IBI) eta Zaborraren tasa.

### Salbuespenak

Elgoibarko Udaleko udalbatzarrak joan den ekaineko osoko bilkuran erabaki zuen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren tarifa orokorra, etxebizitzena, %4,56 jaitea, eta aldiz, tarifa industrialak %7,7 igotzea. Ondorioz, tarifa orokorra 0,224koa izango da 2017ko urtarillaren 1etik aurrera, eta industrialak 0,42koa.

Zaborraren tasa %10,2 igoko da 2017an, eta horren azalpena eman du Udalak: 2016rako tasa onartzeko sasoiaren Debabarrenako Mankomunitateak bere kudeaketaren gastuen aurreikuspena bakarrik aurreratu ziola Udalari eta informazio hartan oinarrituta hartu zutela erabakia, baina handik gutxira, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketari zegokion kuotaren berri izan zutela, lau urtetan akumulatutako defizitagatik. Udalak argitu du gainkostea 140.000 euro bueltakoa



izan zela —%12,79ko gorakada—, eta igoera hori zaborraren tasan integratu behar zenez baina kolpetik %12,79ko igoera aplikatzea gehiegi izango zela irizita, bi zatitan aplikatzea erabaki zutela apirilaren 28ko osoko bilkuran: 2016ko bigarren seihilabetetik aurrera zaborraren tasa %8a igotzea, eta gainerako %4a 2017rako lagatzea. Hortaz, 2017rako proposatzen duten %10,2ko igoera horrek bi konturi erantzuten die: batetik, Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketaren gainkosteari (%4) eta bestetik, Debabarrenako Mankomunitateak 2017rako aurreikuspenetan jasotako hazkundeari (%6,2). Dirutara eramanda, 16 euro gehiago ordaindu beharko dute bosgarren kontenedorea dutenek, eta 20 euro gehiago kontenedore hori ez dutenek.

### EH Bilduren emendakinak

EHBilduren proposamen batzuk onartu eta jaso dituzte datorren urteko ordenantza fiskaletan. Batetik, Ibilgailuen gaineko zergan ere, familia ugarietarako hobaria gehitzea (familiako ibilgailu

batek bakarrik izango du hobari hori) eta gutxiago kutsatzen duten ibilgailuak sartzeko bi hobari sortzea: %75eko hobaria ibilgailu hibridoentzat eta %25ekoa 110 gramo baino karbono dioxido gutxiago isurtzen dutenentzat. Bestetik, eraikuntzaren gaineko zergan tarifa erdira murriztuko da —%2,5— negozio eskualdeketen ondorioz merkataritza lokalak zaharberritzeko egingo diren obratan. Azkenik, eta herritarrek hobari guztien berri era argian jaso dezaten, hobari eta pizgarrien taula Udalaren aldizkarian zein webgunean argitaratuko dute, Bilduren proposamenez.

Zergen eta tasen gaian, mezu bat nabarmendu zuen Udalak, ohi legez: Zerga eta tasen helburu nagusia diru-sarrerak lortzea dela eta diru hori herriari zerbitzuen bidez itzultzen zaiola. Horregatik iruzur fiskalaren kontra egin zuen, beste behin ere: "Zergak *religiosamente* ordaintzea jarrera eredugarria izatea da. Erantzukizuna eta solidaritatea dira goraiatu behar diren jarrerak, eta ez ihesbideak bilatzen ibiltzea".

## Sei hileko kartzela zigorra eskatu du fiskalak Anton Zubiaurrerentzat, hemezortzikoa barik

Anton Zubiaurre mendaroarrentzako fiskalak hemezortzi hilabeteko kartzela zigorra eskatu zuela argitaratu genuen urriaren 28ko alean, berri-agentziek zabaldutako informazioan oinarrituta, baina akusatuek berak argitu du hemezortzikoa beharrean sei hilabeteko kartzela zigorra eskatu duela fiskaltzak. Espioitza industrialak leporatzen diote Zubiaurreri. Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren garaian Sprilur enpresa publikoko lehendakaria izan zen Anton Zubiaurre eta Patxi Lopezen garaian SPRiko goi kargudun baten posta elektronikoan sartu eta espioitza informatikoa egin izana onartu zuen aurrekoan epailearen aurrean.

### 'Ez dut zigortu nahi' hitzaldia antolatu dute Elgoibarren, hilaren 14rako

Maitasunez Hazi elkarteak *Ez dut zigortu nahi* izenburuko hitzaldia antolatu du azaroaren 14rako, Elgoibarko Udalaren babesean. Elgoibarko Kultur etxean izango da hitzaldia, astelehenean, 18:00etan hasita. Nerea Mendizabal psikopedagogo eta gizarte hezitzailea izango da hizlaria, eta besteak beste honako galdera honi erantzungo dio: *Posible ote da mugak jartzea zigor, mehatxu eta xantairik gabe?*

### Azaroaren 29tik abenduaren 4ra egingo da Elgoibarren jubilatuen astea

Azaroaren 29an egingo duten txokolate janarekin (18:00) hasiko dute Elgoibarko jubilatuek euren astea. Hilaren 30ean, Gabonetako otarren zozketa egingo dute ordu berean, eta abenduaren 1ean, 14:00etan, 80 urtez gorakoak eta urrezko ezteiak ospatzen dituztenak omenduko dituzte jubilatuen zentroan bertan egingo duten bazkarian. Bazkarirako izena eman behar da, eta azaroaren 18a, ostirala, izango da azken eguna. Hilaren 3an, larunbata, sorpresa izango dute, eta biharamunean, abenduaren 4an, meza izango dute parrokiaren, 12:00etan, eta ondoren, 18:00etatik 21:30ra dantzaldia, Gelatxorekin.

### Belaustegi jatetxeak bat egin du Tripontziak ekimenarekin

Debegesak eta Debabarrenako Klub Gastronomikoko kideek *Tripontziak* ekimena hasiko dute gaur, garaian garaiko eta bertako produktuen kontsumoa sustatzeko eta eskualdeko establezimenduak ezagutzera emateko. Itziariko Kanala jatetxeak, Debako Urgain eta Calbeton jatetxeak, Lasturko Tabernak, Eibarko Azitain Erretegiak eta Kultu tabernak eta Elgoibarko Belaustegik bat egin dute ekimenarekin eta menu eta pintxo bereziak prestatuko dituzte. Eskaintza gutzia [debabarrenaturismo.com](http://debabarrenaturismo.com) webgunean esegiko dute. Sare sozialetan lehiaketak ere egingo dituzte, herritarren parte-hartzea bultzatzeko.

### Kalamua guraso elkarteak zozketatu du gazta

Kalamua guraso elkarteak Mausitxa gazta bat zozketatu zuen hileko azken zatipatuko ferian eta dagoeneko eman dute zerbaki saridunen berri. 0.899 zenbakia- ren jabeak jasoko du gazta, eta agertuko ez balitz, 0.287 zenbakia duenak. Merkatu Plazan dagoen Txillarre Eko dendara jo beharko du txartel saritua daukanak, sariaren bila. Txartela erakutsi beharko du.

### Sexualitateari buruzko tailerra, azaroaren 16an

Sexualitateari buruzko tailerra antolatu dute Elgoibarko Udalak, Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluak eta Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak elkarlanean, gurasoentzako antolatu dituzten formazio saioen barruan. *Sexualitateari buruz solasean. Autoestima, errespetua, hezkidetzeta eta emozioak* izenburua jarri diote tailerrari, eta eguaztenean egin zuten aurreneko saioa. Bigarren saioa azaroaren 16an izango da, eta bigarren hori ere Lilima Sexologia Taldekoek emango dute. Aurrez izena emanda daudenentzako da saioa.

### Perretxikoen mundua ezagutzeko irteera

Irteera mikologikoa antolatu dute iganderako Morkaiko Mendizale Elkarteak eta Karakate Elkarte Mikologikoak elkarlanean. Bi helburu ditu txangoak: batetik, perretxikoen mundua hobeto ezagutzeko, eta bestetik, gure ekosisteman duten balioaz ohartarazte eta herritarrek kontzientzia- tzea. 9:30ean irtengo dira Kalegoen plaza- zatik eta Karakateko magalera joango dira, oinez. Haur nahiz nagusiak gonbidatu dituzte, baina haurrek arduradun batekin joan beharko dute. Haurrek Herri Eskolan edo Ikastolan eman beharko dute izena.



*Galdera diseinatzen ari den taldeko hainbat kide, barixakuan egin zuten batzarrean.*

## Elgoibar erabakitzera doa

**Erabakitzeko eskubidea gauzatzeko jaió zen Gure Esku Dago, eta hori egi bihurtzeko helburuarekin, 2017ko udaberrian herri galdeketa egingo dute besteak beste Debabarreneko hainbat herritan, tartean Elgoibarren. Erabakitzeko ariketen bidez herritarrak ahaldundu nahi dituzte dinamika honen sustatzaileek, sinistuta daudelako herritarren erabaki askeak eraikiko duela burujabetza. Erabakitzeko eskubideak batzen gaituela aldarrikatu dute behin eta berriz, gure arteko hormak eta harresiak gainditzen laguntzen duela, eta bide batez, elkar hobeto ezagutzea ahalbidetzen duela. "Etorkizun zorionsuagoa eta justuago bat izateko", erabakitzeko eskubidea gauzatzeko ezinbesteko ikusten dute, eta dei egin diete herritarrei herri galdeketa eta ordura arteko prozesuan parte hartzera.**

- AINARA ARGOTIA -

**M**artxoan Oiartzualdean, apirilean Busturialdean, Urolaldean gero... herri-galdeketa hotsak datoz 2017rako, eta Debabarrena ere batu da erabakitzeko eskubidea gauzatzeko duten herri eta eskualdeen sokara. Data zehatza eman ez badute ere, udaberrirako iragarri dute herri-galdeketa Elgoibarren. Horretarako, eta berme modura, herritarren sinadurak batu nahi dituzte lehenengo eta behin, eta gutxieneko bat lortu ondoren antolatuko dute ofizialki galdeketa [Gutxienez 16 urtez gorako 1.500 herritarren sinadurak biltzeko erronka jarri dute Elgoibarren]. Gure Esku Dago-ren protokoloa jarraituko dute Elgoibarren herri-galdeketa egiteko asmoa duten gainerako udalherri guztietan bezala, eta tokian tokiko herri-elkarte edo talde-eragileek antolatuko dute galdeketa.

Lehenengo pausoa beraz horixe da: elkarte sortzea, sinadurak biltzen hasi izateko. Elgoibarko talde eragileak hasita du elkarte sortzeko tramitea, eta erregistroan alta eman zain daude, sinadura eskean hasteko. Ez daude geldirik hala ere, bien bitartean, beste prozesu paralelo bat ere hasia dutelako. Izan ere, herritar talde batek herri galdeketa erabiliko den galdera zein izango den erabakitzen dihardu. Talde eragilean daudenez gain, adin eta kolore askotariko jendeak osatzen du 30 bat laguneko batzorde hori, eta dagoeneko lau bilera egin dituzte galderak nolako izan behar duen eztabaidatu eta adosteko. Aitor Gisasola izan dute gidari, eta talde-dinamika jarraitu dute. Garbi dute galderak argi izan behar duela, kolpean ulertzekoa eta interpreta-

ziorako tarterik uzten ez duena, eta erantzuntzat bai ala ez bakarrik onartzen dituen. Ahalik eta parte-hartze handiena izatea ziurtatu nahi dute, eta hori buruan dutela ari dira lanean galdera sortzeko batzordera batutakoek. Izan ere, emaitza baino gehiago parte-hartzea da garrantzitsua prozesu honetan guztian, sustatzaileen esanetan. Ariketa moduan planteatzen dute galdeketa bera. Erabakitzen ik(h)asiz egin nahi dute aurrera, erabakitzen ik(h)asiz ahaldundu nahi dituzte herritarrak, etorkizunean politikariak lotesle izango den galdeketa bat antolatzera behartzeko.

Durango eta Iruñea batu zituen giza-katearekin hasi zuen Gure Esku Dago erabakiaren aroa, hautetsontziak oihalez eraiki zituzten gero eta bozkatzera deitu dute orain.



**G**ure Esku Dago erabakitzeko eskubidearen aldeko dinamika Urteberriko Saria atera du, Euskal Herri osoan salgai dagoen zozketa. Dinamikaren aurrera begirako proiektua finantzatzeko sortu dute. Elgoibarren ere salgai daude errifak, Pitxintxu liburu-dendan, Jai-alai tabernan, Larre Ogiberri okindegian eta PSE-EE alderdiak Urazandin daukan tabernan. Bost euroan jarri dituzte salgai, eta sari nagusia 30.000 eurokoa izango da. Hala ere, mila euroko beste hamar sari ere zozketatuko dituzte. Urtarrilaren 16an egingo dute zozketa.



Kolore askotariko hogeita hamar bat lagun elkartu dira Elgoibarko Gure Esku Dagok udaberrirako iragarri duen herri-galdeketa erabiliko duen galdera erabakitzeke. Batzordera zerk hauspotuta batu diren azaldu digute bost taldekidek.

### ◆ **Gumersindo Vila:** “Hitz eginda konturatzen zara ez garela hain ezberdinak ere”



“Egunerokoari beste ikunpuntu bat emateko. Politikarekin oso erreta gaude denok, hari guztiak jausten zaizkigu eta iruditzen zitzaidan begira egon ordez neuk ere parte hartu behar nuela dinamika honetan, azken batean herritarren parte-hartzea sustatzen duelako Gure Esku Dagok eta erabakietan parte izateko aukera eskaintzen digulako. Talde heterogeneoa da, eta denborak hegan egiten du hizketan hasten garenean. Ezin da iritzi edo ikuspuntu bat gailendu, dena hitz egin behar da, eta jakina, kosta egiten da gehiengoasetuko duen moduko definizio batera iristea, bakoitzak bere hiztegia eta bizipenak dituelako. Baina aurrera goaz, beharbada talde eragilekoek nahiko luketena baino motelago, baina bai, aurrera goaz. Esperientzia polita ari da izaten. Taldekide gehienak ezagutzen nituen lehendik, baina traturik ez nuen haietako askorekin, eta oso interesgarria egiten ari zait haien iritziak entzutea. Hitz eginda konturatzen zara azkenean ez garela hain ezberdinak ere, eta borondatea baldin badago ez daukagula elkar ulertzeko inolako arazorik. Aurreiritziek eta besteei jarri ohi dizkiegun etiketek zenbaterainoko pisua duten ere jabetzen zara, eta zer nolako traba diren. Neu ere zalantzatzi joan nintzen lehenengo batzarrera, ez nekielako zer topatuko nuen, baina esperientzia positiboa ari da izaten”.

### ◆ **Mari Juli Arregi:** “Garbi dago borondatea baldin badago akordioak lortzen direla”



“Iruditzen zaidalako gutxienez ilusioa sortu duela Gure Esku Dago dinamika. Batzordekideak ilusioarekin eta zerbait egiteko gogoz ikusten ditut, lasai hitz egiteko gogoz. Beharbada denok ere nahikoa baldintzatuta egon gara orain arte, eta orain ekiteko gogoz ikusten dut jendea. Garbi dago borondatea baldin badago akordioak lortzen direla eta adostasun batera iristeko gogoia ikusi dut ingurukoengan. Herri-galdeketa galdera ere adostuko dugu, beraz. Batzarrak dinamizatzeko modua bera ere oso egokia iruditu zait. Oso batzar arinak izan dira”.

### ◆ **Asier Gurrutxaga:** “Galdeketa ahalik eta jende gehienak parte hartzea da gure nahia”



“Dinamika honek herritarren parte-hartzea bilatzen duelako eta hitza ematen digulako batu naiz taldera. Oso positiboa izaten ari da prozesu hau. Taldean adin eta ideologia ezberdinekoak gaude, eta bakoitzak bere iritzia dauka, jakina, baina elkarri entzunez ikusi da badaukagula modua elkarrekin aurrera egiteko. Oso positiboa egiten ari zait besteen iritziak entzutea, adibidez. Aurreiritziak denok izango genituen, baina halako bileretan konturatzen zara nahi badugu gai garela ados jartzeko ere. Galdera adostu behar dugu, eta adostuko dugu, borondatea badagoelako. Garbi dago galderak argia eta erakargarria izan behar duela, galdeketa ahalik eta jende gehienak parte hartzea delako gure nahia. Denok berdina ulertu behar dugu galdera entzutean, eta gero, emaitza izango da gure gustukua edo ez, baina hori bigarren mailakoa da orain, emaitza edozein dela ere, denok irabazten dugulako. Ariketa modura bakarrik ere oso interesgarria da dinamika honek proposatzen duena”.

### ◆ **Evaristo Rodriguez:** “Garbi dago politikarien aldean herritarrok askoz garbiago ikusten ditugula gauzak”



“Pixkat errebotez sartu nintzen ni neu. Podemos alderdiaren taldea osatzea zen nire proiektua, eta Gure Esku Dagoko talde eragileko batzuek nire inguruko batzuei proposatu zieten taldera batzea, baina haiek ezin zuten, neu hasi nintzen, eta oso gustura gainera. Dinamika hau interesgarria iruditzen zait, herritarrei hitza ematen dielako. Herritarrei politikan edo beste edozein gaitan parte hartzeko aukera eskaintzen dion edozein ekimen da interesgarri niretzat. Erabakitzeke eskubideaz ari gara kasu honetan eta erabakitzeke eskubideak, beste gai askok bezala, merezi du haren alde borrokatzea. Taldea oso heterogeneoa da, denetarikoa gaude, eta alde horretatik oso interesgarria eta aberatsa da besteen iritziak entzutea. Iruditzen zait, harrigarria egiten bada ere batzuetan ikusirik zein ezberdinak garen, oinarrian elkarrengandik oso gertu gaudela erabakitzeke eskubidearen gaian; funtsean ez garela hain ezberdinak, alegia, eta borondatea dagoenean akordioak lortzea posible dela. Garbi dago politikarien aldean herritarrok askoz garbiago ikusten ditugula gauza asko”.

### ◆ **Edurne Bilbao:** “Prozesuan elkarrekin gaiak lantzen, partekatzen eta erabakiak hartzen ikasten gaude”



“Gonbitea egin zidaten, eta herritarren ikuspegi desberdinak jaso eta elkarren artean jarduteko ekimena zela ikusita, baiezkota eman nuen. Didaktikoa eta aberasgarria da. Prozesuan elkarrekin gaiak lantzen, partekatzen eta erabakiak hartzen ikasten gaudela uste dut. Bidean sartu gara eta pixkanaka aurrera goaz. Prozesuaren dinamizatzaileran lanetan lagun ditugu Aitor Gisasola eta Elgoibarko Gure Esku Dago ekimeneko sustatzaileak. Eskertu nahi diet egiten diharduten ahalegina”.

## Minbiziaren kontrako erakundeak egoitza zabaldu du Eibarren, Debabarrenako gaixoentzat eta haien senideentzat



*Arantxa Diez, Balbi Vives, Carmen Larrañaga, Paquita Perez eta Amparo Esteve.*

**M**inbiziaren kontrako borrokak batu ditu Arantxa Diez, Balbi Vives eta Carmen Larrañaga mendaroarrak eta Amparo Esteve eta Paquita Perez elgoibartarrak. Boluntarioak dira, eta Minbiziaren Aurkako Gipuzkoako Elkartearekin eskuz esku ari dira lanean. “Laguntzeko gaude, eskatzen digutenerako prest”, nabarmendu du Carmen Larrañagak. Eta bai, halaxe dabilta. Ikusi ditugu xingolak banatzen Bularreko Minbiziaren Kontrako Nazioarteko Egunean, ikusi ditugu elkarterako diru-bilketa kanpainetan eta baita elkarteak han-hemen egin izan dituen kontzientziazio kanpainetan ere. Oraingoan, AECC Minbiziaren Kontrako Espainiako Erakundeak, Eibarko Udalaren laguntzarekin, Eibarren zabaldu berri duen egoitza aurkezteko elkartu dira.

Debabarrenako gaixo eta haien senideei lagundu eta haientzako arreta hobetzeko asmoz zabaldu du AECCk bilgunea Eibarren, Ardantza kaleko haizkagarren zenbakian. 81 metro koa-

droko lokala da eta psikologo bat eta gizarte laguntzaile bat ariko dira bertan lanean, egun erdiz (9:30etik 13:30era). Eibarkoarekin bost dira AECCk Gipuzkoan dauzkan egoitzak: Donostiakoa, Bidasoalderakoa Irunen, Tolosalderakoa Tolosan, Urola Kostarakoa Zarautzen, eta Urola Garai eta Goierriakoa Zumarragan.

Eta dena behar da. Diagnostikoa jasotzen den une hori zein gogorra den ondotox daki Arantxa Diezek eta baita une horretatik aurrera inguruko eta profesionalen babes eta laguntza zein garrantzitsua den ere. Izan ere, medikuntzan asko aurreratu bada ere, eta gaixo asko sendatzen badira ere, oraindik ere “minbizia” hitza entzutean barrua nahasten zaigu eta animoa kolpetik abaildu. Bada, Eibarko zentro berriaren laguntza profesionala eskainiko dute, doan, eta gaixotasunak fisikoki ezinduta lagatzen dituen laguntzako materiala ere jarriko dute eskuragarri. Prebentzioa, detekzio goiztiarra, eta

gaixo eta senideentzako arreta eskainiko dute, azken batean.

AECCk 2016rako zituen erronka handietako bat gauzatu du beraz. Beste erronka irailean gauzatu zuen: Donostian leuzemiak jotako gaixoentzako eta haien senideentzako harrera etxea zabaltzea. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian, Donostia Ospitalean bakarrik egiten dituzte medulako transplanteak eta gaixoei egonaldi luzeak egin behar izaten dituzten ospitalean. Egondaldi horiek arintzeko modua eskainiko die etxeak.

### Abenduaren 3an diru-biltze kanpaina Mendaron

Abenduaren 3an Kontzejio Azoka egingo da Mendaron, eta egun hori Minbiziaren kontrako elkartearentzat diru batzeko baliatuko dute elkarteko boluntarioek. Itsulapikoak hartuta ibiliko dira kalean. “Ekarpen guztiak, baita txikiak ere, asko dira gure elkartearentzat”, nabarmendu du Balbi Vives boluntarioak.

Zuen kezak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**Mendaroko txaleten aurrean jendeak ez ditu aparkalekuak errespetatzen:** "Autoak aparkatzeko lekuak errespetatzeko dira, eta markak zerbaitetarako dira. Txaleten parean marketatik kanpora aparkatzen du jendeak errebuelta bertara arte, eta itxuraz ez dira konturatzen ondo zer nolako traba egiten duten. Autoek eta batez ere kamioiek ez dute lagatzen paretik datorrena ikusten eta susto bat baino gehiago izan ditugu horren erruz. Mendaron aparkatzeko arazorik ez dago zorionez, beraz, mesedez errespetatu ditzagun horretarako egokitutako lekuak. Gai honetan kargu hartzea eskatuko nioke Udalari".



**Jausoro plazako parkea kakaz beteta egoten da:** "Jausoro auzoko parkean kaka mokordo asko egoten dira. Toki hori ez da txakurrekin ibiltzeko gunea, baina hala ere, txakurrekin joaten denak kakak jasotzeko ardurra izan beharko luke. Txakur-jabe askok txukun-txukun jasotzen dituzte kakak plastikoetan, baina beste askok lurrian bertan uzten dituzte. Bizilagunon elkarbizitzarako ezinbestekoa da denon eskubideak errespetatzea.



**Pilarreko aparkalekua oso egoera txarrean dago:** "Pilarreko aparkalekua lotsagarri dago. Badakigu behin behineko aparkaleku bat dela eta agian ezin dela gune horretan diru askorik inbertitu, baina apur bat txukundu beharko litzateke. Harriak erortzen dira, ur-putzu handiak sortzen dira euria egiten duenean, belarra hazi da... Elgoibarren aparkatzeko zailtasun handiak daude, eta jende askok erabiltzen du Pilarreko gune hori aparkatzeko. Beraz, eskatu nahi dugu gune hori apur bat berritzea".

**Urazandiko haur parkean ez dago iturririk:** "Urazandiko haur parkean iturria behar da. Auzoko ume asko ibiltzen dira parkean jolasean, eta ez daukate ura edateko iturririk. Behera jaitsi behar izaten dute, errepide ondora. Korrika eta jolasean jarduten dutenean, izarditu egiten dira eta ura edatea beharrezkoa da. Komuna jarri zuten bezala, iturria jartzea ondo legoke. Eskerrik asko".



**Sigmako josteko makina txukundu dute:** "Sigmako josteko makina egoera oso txarrean zegoen, eta izugarri poztu naiz berrituta eta garbituta ikusi dudanean. Herrirako sarreran dago, jende asko pasatzen da errepide horretatik eta lehen itxura txarra ematen zion herriari. Orain, ordea, gure herriaren ikur bilakatu daiteke. Gu ohituta gaude josteko makina erraldoi hori hor ikustera, baina kanpoko jendeari atentzioa ematen dio, bitxia iruditzen zaio. Gure herriko historiaren parte da makina hori, eta zaindu egin behar da".

# “Lan asko eta desberdinak eginez lortu dut musikatik bizitzea”

## ▶ HAZHE MUSIKARIA



Erik Cunningham Sarabia dago Hazhe musikariaren atzean. Aita estatubatuarra du, eta ama Elgoibarren jaioa. Zaragozara bizitzera joan zen ama, eta Ameriketako Estatu Batuetako militar bat ezagutu zuen han. Bikote haren harremanetik jaio zen Erik. Hasieran Iker izena jarri behar zioten semeari, baina azkenean, Erik jarri zioten, hizki berberak beste orden batean jarrita. Gaur egun Hazhe da bere izen artistikoa, eta hip-hop estiloko musika egiten du.

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ Hazhe da zure artista izena. Nondik dator eta zer esan nahi du?

Graffitiak egiteko zaletasuna daukat, eta nire marrazkiak Haze izenarekin sinatzen nituen. Lainoa edo konfusioa esan nahi du. Nire lehenengo diskoa grabatu nuenean 'h' hizkia sartu nion tartean, haze hitza bere horretan arruntegia iruditzen zitzaidalako. Izen berezi eta esklusiboagoa nahi nuen.

### ◆ Aita estatubatuarra eta ama elgoibartarra. Nola ezagutu zuten elkar?

Ama gaztetan joan zen Zaragozara. Nire aita militarra zen, Estatu Batuetako Zaragozako basean. Horrez gain, musikarako zaletasuna zeukan, eta DJ moduan ibiltzen zen Zaragozako hainbat aretotan. Nire amari dantza egitera joatea gustatzen zitzaien, eta horrela ezagutu zuten elkar. Ni Zaragozan bizi izan naiz orain-

tsu arte. Gaur egun Granadan bizi naiz, han daukadalako nire grabazio estudioa. Sarri joaten naiz Zaragozara familiakoak bisitzera, eta Elgoibar ere ezagutu nuen, baina orain dela urte asko. Ezer gutxi goratzen dut.

### ◆ Nondik dator kizua musikarako zaletasuna?

Aitak eragin handia izan du musikarako dudaren zaletasunean. Nik hip-hop

musika egiten dut. Hip-hop mota asko daude: kontzientziakoa, malenkoliakoa, lehiaketakoa... Baina, oro har, oinarri erritmiko bat dute mota guztiek, eta gainera rapero batek abesten du. Soinuak eta ahotsak bat egiten dute. Nik normalean oinarri erritmikoak konposatzen ditut beste artista batzuentzako. Tarteka atera izan ditut nire disko propioak, baina bereziki, besteentzako konposatzen dut.

#### ♦ Zein artistek izan dute eragina zuzan?

Talde eta bakarlari asko entzun izan ditut, baina bereziki, Company Flow, Onyx, Group Home edota Cypress Hill aipatuko nituzke. Produkzio lanetan ere aritzen naizenez, soul, jazz, rock edo rare musika ere asko entzuten dut.

#### ♦ Reggeaton musikak polemika sortu du, letrei eta irudiei dagokienean emakumearen irudia gutxiesten duelako. Zer iritzi duzu horren aurrean?

Musika estilo guztiak bezalaxe, existitzen bada jendeak entzuten duelako da. Reggeaton musikak bere une eta lekua ditu, beste edozein estilok bezalaxe. Argi daukat jende latinoak joaten den areto baten jarri beharko banu musika ez nintzatekeela rap yankeea edo dubstep estiloko musikarekin hasiko. Reggeaton musikak bere lekua izango luke, jende horrek atsegin duelako eta modu horretan lortuko nukeelako giro ona eta festa sortzea. Azken batean jendeak ondo pasatzea da gure helburua, eta horretarako gustuko duena eman behar zaio. Hotz hortzean letrak aztertzen baditugu, egia da emakumea gutxiesten dela, baina lekua eraren eta unearen arabera, ez dut lekuz

kanpo ikusten reggeaton musika. Musikan, jatekoan bezala, gustu kontua da dena. Ez zait gustatzen jendea entzuten diodanean artista bat bestea baino hobea dela, lotsagarria iruditzen zait hori esatea. Iritzi eta gustu kontuetan, denok daukagu arrazoia; bakoitzak berea, hori bai.

#### ♦ Zuk zeri abesten diozu?

Nik neure buruari abesten diot. Modu batean edo bestean denok konektatuta gaudela uste dut, eta besteengana iristeko modurik onena norbere buruarekin zintzo jokatzeko da. Modu horretan lortzen da entzulea zure hitzekin identifikatzea. Gaztelaniaz abesten dut bereziki, baina tarteka ingelesari ere egiten diot lekua.

*“Niretzako musika egitea plazera da, lana baino gehiago”*

#### ♦ Musika da zure zaletasun nagusia, baina musikatik bizi zara?

Musikatik bizitzen saiatzen naiz, bai, baina herrialde honetan oso zaila da musikatik bizitzea. Kulturak %21eko BEZa dauka, pirateria handia dago eta gainera, autonomoentzako laguntzarik ez dago apenas. Gehiegizko tasak jasan behar ditugu artista eta autonomoek, eta dudarik gabe, musikatik bizitzeko herrialderik txarrena da Espainia. Baina bueno, hemen oso ondo jaten da, ezta? Zerbait ona esatearren...

#### ♦ Pirateria aipatu duzu. Nola egiten diozue aurre?

Lan asko eta desberdinak eginez lortu dut nik musikatik bizitzea. Ez naiz geldirik egoten den horietakoa, eta etengabe bide berriak bilatzen ahalegintzen naiz. Oinarri erritmikoak saldu eta musika nahastu eta grabatzeaz gain, tarteka kontzertu batzuk eskaintzen ditut Mala Juntera, Capaz Fernandez, Payo Malo edo Original Juan moduko taldeekin. Asteburuetan, bestalde, DJ lanak egiten ditut hainbat aretotan, eta musika produktorako klaseak ere ematen ditut Ableton Live eta Logic Pro programekin.

#### ♦ Kriaren eraginez kulturak murrizketa asko jasan ditu. Nola eragin dizu horrek?

Gainerako langileei bezalaxe. Gaur egun hiru aldiz gehiago lan egin behar da, lehengo soldataren erdia kobratzeko. Baina beno, niretzako musika egitea plazera da, lana baino gehiago, beraz, gaitzerdi. Hala ere, lotsagarriak dira herrialde honetan hartzen diren erabakiak. Gutxi batzuen mesederako, gainerako biztanleei kalte egitea ez da bidezkoa. Kalitate gutxiko eta handikeri handiko gizakiek soilik hartzen dituzte horrelako erabakiak.

#### ♦ Aurrera begira, zein proiektu dituzu?

Epe laburrean herrialde honetatik alde egitea da nire asmoa! Muskarako herrialderik txarrena da hau! Txina, Japonia, Suitza, Kanada, New York, Kolonia... Horietako herrialderen batera joango naiz eta hango musika-industrian nire lekua egiten saiatuko naiz.





Hezitzaile taldea.

# Neguko oporraldirako eskaintza oparoa prestatu dute Atxutxiamaikak eta Ludotekak batetik, eta Gaztelekuak bestetik

**Elgoibarko Izarrako aisialdi taldeak haur eta gazteentzako eskaintza oparoa prestatu du neguko oporraldirako. Atxutxiamaikak eta Ludotekak eskaintza bateratua egingo dute etxeko txikientzako, eta Gaztelekuak bestalde, gazteentzako ekintzak prestatuko ditu. Parte hartu nahi dutenek azaroaren 14tik 25era daukate izena emateko aukera.**

- AINHOA ANDONEGI -

## Atxutxiamaika eta Ludotekaren eskaintza bateratua

Haur Hezkuntzako bigarren mailatik hasita Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko umeentzako eskaintza prestatu dute Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Sailak eta Ludotekak elkarlanean. Ekintza horietan parte hartu nahi dutenek aurrez eman beharko dute izena, eta antolatzaileek esandakoaren arabera, plazak mugatuak izango dira. Ekintza bakoitzak bere prezioa izango du, eta nahi izanez gero, bi epealditan ordaintzeko aukera ere badago. Interesatuak azaroaren 14tik 25era bitartean eman beharko dute izena Elgoibarko Izarran, Ludotekan edo [www.elgoibarkoizarra.eus](http://www.elgoibarkoizarra.eus) webgunean. Lau adin tartetan banatu dituzte haurrak, eta adin tarte bakoitzera egokitu dituzte planak:

### 1. Apariketan (HH2-HH4)

Abenduaren 26tik 30era eta urtarrilaren 2tik 5era izango da, 9:00etatik 13:00etara. HH2tik HH4ra bitarteko umeak parro-

kiako arkupeetan batuko dira, Apariketan jolasteko. Eskaintza honen prezioa 65,5 eurokoa izango da (Elgoibarko Izarrako eta Ludotekako bazkideek 59 euro). Nahi duenak goiz txoko zerbitzua kontratatuzko aukera izango du 7:30etik 9:00etara.



## 500 lagunek eta 55 elkartek parte hartuko dute 365 ekimeneko giza katean



Elgoibarko Euskarak 365 Egun taldeak *Euskara Jalgi hadi plazara* jaialdia antolatu du abenduaren 2rako. Aurtengo ekimenak bi atal izango ditu. Batetik, 19:00etan hasita, Kalegoen plazatik Maalara arteko giza katea egingo da, 500 lagun eta 55 elkarteren parte-hartzearekin. Bestetik, giza katea amaitutakoan, *Plazera plazara* jaialdia egingo da, Maalako parkean. Jaialdi horretan herriko 18 elkartek hartuko dute parte. Jaialdian, besteak beste, errezitaldiak, karaokea, dantza, musika, esketxak eta txirigotak ikusi eta entzungo dira. Elgoibarko Euskarak 365 Egun Taldeko kideek Elgoibarko euskaltzale guztiak animatu nahi dituzte abenduaren 2rako antolatu dituzten ekimenetan parte hartzera.

## Atabal elkarteko zuzendaritza berria hasi da lanean

Trinitateetako nagusien danborrada antolatzen duen Atabal elkarteak zuzendaritza talde berria aurkeztu du. 2005etik lanean aritu den zuzendaritza ordezkaturiko du Encarni Migalesek gidaturiko duen taldeak. Migalesek orain arte eginiko lana eskertu die aurreko zuzendaritzakoei eta adierazi du haiek egindako lanari segida emateko asmoa dutela. Egin asmo dituzten aldaketa eta ekintzen berri danborrada egiteko eguna gerturatu ahala emango dituzten arren, dagoeneko lanean hasita daudela azaldu dute. "Eta hasteko zer hoberik ilusioa banatuz hastea baino? Gabonetako loteria ekarri dugu Sort herriko Bruixa d'Or loteria dendatik". 51.376 zenbakia jarri dute salgai herriko hainbat taberna eta dendatan. Argazkian, tente, zuzendaritza zaharrekoak, eta jarrita, berrikoak.



## 'La tabernera del puerto' zartzuela gaur

*La tabernera del puerto* zartzuela ikusteko aukera izango da gaur Herriko Antzokian, 20:30etik aurrera. Ia bi orduko zartzuela da, eta sarrerak 15 euroan jarri dituzte salgai (ikasleak eta gazte txartelduentzat 8 eurotan). Sarrerak Kutxa bidez, Kultur Etxean edo lehiatilan bertan erosi ahal izango dira.

## 36ko gerraren errekreazioaren dokumentala, hilak 29an

36ko gerraren errekreazioko irudiekin *Memoriaren ganbaratik* dokumentala osatu dute Taupadak eta Elgoibar 1936ko taldeak, eta azaroaren 29an eskainiko dute Herriko Antzokian. Bi saio izango dira: 19:00etan eta 21:00etan, eta sarrerak 5 euroan jarri dituzte salgai (10 urtez beherakoentzat: 2 euro). Sarrerak Pitxintxun egongo dira salgai aurrez erosi nahi dituenentzat, baina Herriko Antzokiko lehiatilan ere egongo dira eskuragai egunean bertan. Bestalde, dokumentala DVD euskarrian ere atera dute, baina eskuratzeko aurrez eskatu behar da, ez baitute beste inon salgai jarriko. Horretarako bi aukera daude: batetik, [taupada0@gmail.com](mailto:taupada0@gmail.com) helbidera idaztea eta bestetik, herriko denda eta tabernetan eskaria egitea. Eskaria egiten dutenei abenduaren 1ean eta 2an banatuko dizkiete DVDak, Kultur Etxeko sotoan, 19:00etatik 21:00etara.

## Edoskitzeari buruzko argazki lehiaketa

Edoskitzearen inguruko argazki lehiaketa antolatu du Debabarrenako ESik, edoskitzearen alde egiten ari diren lana ezagutarazi eta laktantziaren balioa agerian jartzeko. Argazkiak originalak izan behar dira, eta azaroaren 18rako bidali behar dira [Bpsosidebabarrena@osakidetza.eus](mailto:Bpsosidebabarrena@osakidetza.eus) helbidera.



## CD Elgoibarrek afariak zozketatuko ditu bazkideen eta Haundiko jokalarien artean



**K**lub Deportibo Elgoibarrek Mintxetara Haundiren partidak ikustera joaten diren bazkideak saritzeko ekimena jarri du abian. Hala, Txarriduna jate-txearekin elkarlanean, bi lagunentzako afariak/bazkariak zozketatuko ditu exeko partidaren atsedenaldian. Era berean, Haundiko jokalaria ere sarituko ditu CD Elgoibarrek, Hileko Jokalari Onenaren Sariarekin. Sarituek Sigma jate-txeak eskainitako bi lagunentzako afaria eskuratuko dute. Gorka Amutxas-tegi izan da saria jasotzen aurrenekoa, bera izan baita urriko Haundiko jokalari onenaren saria irabazi duena. Haundiko entrenatzaileak, aurkari izan dituzten taldeetako entrenatzaileak eta zelaiko delegatuak emandako botoekin banatuko dute sari hau.

## Mendaroko giza proba taldearen erronka berria


Erronka bitxia jarri dio bere buruari Mendaroko Tope Natxiok Giza Proba Taldeak. Renault 4L auto zahar bat tiraka eramaten ahaleginduko dira Lizarpe gainerraino. Bost kilometroko ibilbidean %10eko desnibela gainditu beharko dute, 800 kilo inguruko auto zaharrari tiraka.

Tope Natxiok taldeak abenduaren 18an egingo du ahalegina, 11:00etan hasita.



## Euskal Herriko Lokotx Biltze Txapelketa jokatu dute zapatuan

Euskal Herriko lokotx biltzaile onenak batuko dira zapatuan (azaroak 12) Elgoibarko Kalegoen plazan (euria egiten badu Elgoibar Ikastolako frontoian), emakumeen eta gizonen Euskal Herriko Lokotx Biltze txapelketan parte hartzeko. 12:00etan hasiko da lehia eta parte hartzaileek 1,25 metrotara eta bi lerrotan jarritako 50 lokotx bildu beharko dituzte.



## Emaitzak

### FUTBOLA

Aloña Mendi 0 – Haundi 2 (Oho. erreg.)  
Zarutz 1 – Elgoibar 2 (1. erreg.)  
Elgoibar 0 – Bergara 3 (Oho. jub.)  
Anaitasuna 1 – Elgoibar 3 (Jub. 1. maila)  
Elgoibar 1 – Ordizia 2 (Oho. kad.)  
Elgoibar 2 – Burumendi 0 (Inf. 1. maila)  
Burumendi 3 – Elgoibar 9 (Infantil Txiki)  
Elgoibar 1 – Zumaia 3 (Alebinak)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 2 – Colo Colo 5 (Nazional B)

### ESKUBALOIA

Alcorta F.G. 37 – Maristas Zaragoza 29 (Senior giz.)  
Lauko 27 – Askartza 21 (Senior emak.)  
Salento 22 – Ordizia 32 (Senior giz.)  
Zarutz 25 – Beristain 22 (Jub. mut.)  
Tecnifuelle 25 – Aiala 17 (Jub. neska.)  
Zarutz 31 – Urkunde 24 (Kad. mut.)  
C. Astigarraga 24 – Aiala 32 (Kad. neska.)  
Pulpo 24 – Deca 21 (Kad. mut.)  
Tolosa 34 – Bankoa 11 (Kad. mut.)  
Aloña B 13 – Dario 25 (Kad. neska.)  
Cometel 21 – Aiala A 27 (Kad. neska.)  
Zarutz 20 – H. Txarriduna 20 (Inf. mt.)  
Murgil 30 – Urola A 10 (Inf. mut.)  
Aloña A 15 – Bacalaos Alcorta 14 (Inf. neska.)  
Modeltek 5 – Pulpo 25 (Inf. neska.)  
Pneumax 31 – Eibar 16 (Inf. neska.)

## Agenda

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapata, 12  
10:00 Elgoibar – Zarutz (Infantil Txiki)  
11:45 Elgoibar – Ikasberri A (Jub. 1. maila)  
16:30 Haundi – Ostadar (Oho. erreg.)  
18:30 Haundi – Urola (1. erreg.)  
Domeka, 13  
10:00 Elgoibar – Anaitasuna - Orioko (Futbol Eskola)

### ESKUBALOIA (Olaizaga Kiroldegian)

Zapata, 12  
10:00 Bacalaos Elg. – Eibar B (Inf. neska.)  
11:15 Txarriduna – Bergara (Inf. mut.)  
12:30 Bankoa – Corazonistas (Kad. mut.)  
17:45 Cometel – Ereintza (Kad. neska.)  
19:30 Dario – Aiala B (Kad. neska.)  
Domeka, 13  
10:00 Deca – Corazonistas (Jb.mt.)  
11:30 Urkunde – Eibar (Kad. mut.)  
13:00 Beristain – Eibar (Jub.mt.)

**LANA.....**  
**Eskaerak**

Umeak eta adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest nago. 13:00etatik aurrera.  
☎ 620 757 528

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Interna moduan ere bai.  
☎ 602 193 095 / 612 216 458

Garbiketa lanak egiten ditut: bulegoak, portalak, etxeak... Euskalduna.  
☎ 626 490 986

Adinekoak zaintzeko prest nago eta garbiketa lanak ere egingo nituzke. Orduka, asteburuetan, edo interna moduan. Erreferentzia onak.  
☎ 685 288 238

Portalak garbitzeko prest nago. Orduka.  
☎ 602 490 595

Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 649 044 223

Adinekoak zaintzeko prest nago.  
☎ 612 242 293

Etxeak garbitzeko eta umeak zaintzeko prest nago. Orduka.  
☎ 943 744 033 / 637 102 725

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 647 100 572

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 185 896

Etxeak edo portalak garbituko nituzke. Elgoibartarra eta euskalduna naiz.  
☎ 649 782 967

Orduka lan egiteko prest nago.  
☎ 602 047 812

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 638 338 816

Matematikako klase partikularrak ematen dizkiet DBH, Batxilergo edota unibertsitateko ikasleei. Matematikan lizentziatua.  
☎ 667 625 233

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo asteburuetan. Esperientziarekin eta geriatriako ikastaroak eginda.  
☎ 602 393 678

Garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.  
☎ 602 473 663

Lurrak lijatu eta barnizatzen ditut. Tarima flotantea ere jartzen dut.  
☎ 632 253 315

Adinekoak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Asteburuetan.  
☎ 646 821 678

Adinekoak zaintzeko edo baserrietan lan egiteko prest. Interno edo orduka. Erreferentzia onak.  
☎ 686 077 316

Lanerako prest nago. Adinekoak zaintzen, etxeak eta lokalak garbitzen...  
☎ 655 094 780

Ingelesezt hitz egiten ikasi nahi duzu irakasle natiibo batekin?  
☎ 943 740 225 (Francesca)

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest nago. Larunbat eta igandetan.  
☎ 642 381 844

Adinekoak orduka zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.  
☎ 631 506 763

Pertsona arduratsua adinekoak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 602 876 692

Adinekoak zaindu edo portalak garbitzeko prest nago.  
☎ 638 338 816

Adinekoak zaintzeko prest nago. Asteburuetan. ☎ 660 290 237

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka ere bai. ☎ 631 931 030

Adinekoak zaindu, zerbitzari lanak edo garbiketarako egiteko prest nago. Edozein lan hartuko nuke.  
☎ 637 074 529

**Eskaintzak**

Malape tabernarako zerbitzaria behar da. CV tabernan bertan utzi.

Elgoibarko denda batean lan egiteko neska behar da. Ezinbestekoa euskalduna eta 20-35 urte bitartekoa izatea. Bidali cv: [dendacv@hotmail.com](mailto:dendacv@hotmail.com)

Arztele makinatan esperientziadun ofiziala behar da. Makina prestatzeko ohiturakin. Pieza unitarioak. Lanpostu egonkorra. Bidali CV helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar, edo [rectificadorexteriores@hotmail.com](mailto:rectificadorexteriores@hotmail.com)

**ETXEBIZITZAK.....**  
**Alokairua**

Logela bakarreko edo biko etxea hartuko nuke alokairuan. Premiazkoa da.  
☎ 602 377 921

Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarran.  
☎ 631 252 750

Etxea alokatzen dut Mendaron, erdigunetan. Bi logela, igogailua, berogailu zentrala, oso argitsua, egongela-jangela oso handia.  
☎ 689 781 069

Bi logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan.  
☎ 631 098 995

Bi edo hiru logelako etxea hartuko nuke alokairuan.  
☎ 688 723 121

**GARAJEAK.....**

Garajea hartuko nuke alokairuan Urazandin.  
☎ 609 951 243

**BESTELAKOAK.....**

Hiru asteko katakumeak oparitzen dira.  
☎ 699 789 934

Patinetea galdu dut, Micro markakoa, morea. Maala eta Santa Ana kale artean.  
☎ 676 662 017



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**NORFO SL**

**Jakin nahiko nuke jabekideen ze gehiengo beharko nukeen eraikinaren parte den lokal batean kafetegia zabaltzeko. Komunitateko Estatutuen arabera, debekatuta dago lokal horiei halako erabilerak ematea eta zarata sor dezaketen edozein jarduera baimentzeko jabekideen baimena behar dela zehazten da.**

Hasiera batean, jabeek nahi dutenerako erabili ditzakete lokal horiek, beti ere Estatutuetan debekurik zehazten ez bada eta ematen zaion erabilerak eraikinari kalterik eragiten ez badio edo jarduera gogaikarria, arriskutsua edo osasunerako kaltegarria ez bada.

Estatutuetan garbi azaldu behar da debekua zein den. Jabekideen dokumentazioan ez bada debekurik zehazten lasai asko zabaldu ahalko duzu kafetegia, bizilagun guztiak kontra egonda ere. Jabekideen baimena beharko bazenu, nahikoa izango zenuke gehiengo sinplearekin.

**AHOLKUA: Pertsona horrek besteen baimenik gabe zabalduko balu kafetegia, eta gainerako jabekideek bere kontra egin nahiko balute, jarduera horrek zarataren gaineko araudia urratzen duela frogatu beharko lukete.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**administradores**  
Consejo Económico de Elgoibar  
Instituto de Estudios Económicos  
Unidad de Estudios Económicos  
Unidad de Estudios Económicos



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira **BARRE**Neko bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **printzesa**, maite zaitugun guztion partez. Muxu bat, bereziki aitak eta leirek.



Zorionak, **Naiara**, gaur 10 urte egin dituzulako. Gurasoen partez, muxu handi bat. Ondo pasa!



Zorionak, **Unax!** Azkenean iritsi da eguna. Igandean 5 urte! Muxu handi bat etxeko partez.



Zorionak, **Elena**, astelehenean 9 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki Mariaren partez. Muxu bat.



Zorionak, **panposa**, astelehenean 9 urte bete zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak, **Luma eta Laida!** Azaruazuen urtebetetziak! Muxuak etxeko guztion partez.



**Ospakizuna.** Hemen gaude 80 urteko neska-mutilak. Oso ondo pasatu genuen. Eskerrik asko antolatzaileei.

Erretratu bakarrek agurra: 4,50€.  
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO  
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrek agurra: 3,50€.  
Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.  
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

# SALENTO

## BAR PIZZERIA



Pedro Migel Umuzuno, 10 - 20870 Elgoibar  
salento\_elgoibar@hotmail.com  
Facebook/Salento de Carlo

# BERRIA!

Etxez etxeko banaketa aste guztian zehar



**BANAKETAREN ORDUTEGIA:**

Astelehenetik ostegunera:  
20:00etatik 23:00etara

Ostiral eta larunbatak:  
20:00etatik 23:30era

Igandetan:  
13:00etatik 16:00etara  
20:00etatik 23:00etara

**GURE ESKAINTZATIK NAHI DUZUNA ESKATU ETA ETXERA ERAMANGO DIZUGU.**

943 740 196



salento de carlo

Eguneko menua: astelehenetik ostiralera

# A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com  
Santa Ana kalea, 28 beheak - 2. zkia - 20870 Elgoibar

## 610 226 651



# Uzuri

ELGOIBAR - DEBA

## optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel.: 943 740 359 [www.uzurioptika.com](http://www.uzurioptika.com)

PANTAILA AUREAN  
BEGIAK NEKATZEN  
ZAIZKIZU?

Boleto hau ekarri z gero deskontua izango duzu eyezen lantzetan

-%45

4 dioptrira arteko lantzetan

-%30

6 dioptrira arteko lantzetan

-%20

6 dioptrira aurrerako lantzetan

Hilabete amaiera artera arteko balioa



**EPSV BAT**  
**IREKITZEA AUKERA**  
**INTERESGARRIA DELA**  
**IRUDITZEN AL ZAIZUE?**

EPSV edo Pentsio Plana etorkizunari begira eskaintzen den aurrezte produktu bat da. Produktu bezala, ez da beste produktu batzuk baino erakarriagoa (inbertsio fondoak adibidez), baina bere zerga tratamendua hobea da. Hori da abantaila nagusia.

EPSVra norbanako baikoitzak gehienez 5.000 eurotako ekarpena egin dezake urtero, eta aportazio hori, oso-osoan deduzitzen da errentaren aitortzean. Horren ondorioa da errentan ordaintzea irteten bazaio, bezeroak gutxiago ordainduko duela, eta kobratzea irteten baldin bazaio, berriz, gehiago kobratuko duela. Kontuan eduki behar da EPSV hauetara egiten diren ekarpenak ezin direla 10 urtean atera.

EPSVa da, etxebizitzaren erosketarekin batera, errentan deduzio handiena eskaintzen duen produktua.

Atal honetarako galderarik proposatu nahi izanez gero idatzi helbide elektronikohonetara: [galderak@bankoia.es](mailto:galderak@bankoia.es)

## 11 BARIXAKUA

**20:30** Zartzuela: 'La tabernera del puerto'. Herriko Antzokian.

**22:30** Kontzertua: Keu Agirretxea. Mendaroko Gaztetxean.

## 12 ZAPATUA

**11:00** Bisita gidatua: San Bartolome Parrokia. Parrokiaren 300. urteurreneko ekin-tzen barruan.

**11:30** Magosto Eguna. Galiza Etxeak antolatuta, Maalako parkean.

**12:00** Euskadiko Lokotx Biltze Txapelketa. Kalegoen plazan (euria egiten badu, Ikastolako frontoian).

**12:00** Bisita gidatua: 'Elgoibar erdi aroan'. Pia Alkain Arkeolan fundazioko kidea izango da gidaria. Bisita doakoa izango da, baina izena eman behar da, 943 638 218 telefonoan edo [arkeolanarkeologia@gmail.com](mailto:arkeolanarkeologia@gmail.com) helbidean.

## 13 DOMEKA

**9:30** Irteera mikologikoa. Morkaikok eta Karakate mikologia elkarteak antolatuta. Kalegoen plazan batuko dira, eta Karakate ingurura joango dira perretxikoak batzera.

**12:30** Gaztañerre Eguna. Musikaz giro-tua. Gaztainak banatuko dituzte, doan. Al-tzolan, elizako arkupeetan.

## 14 ASTELEHENA

**18:00** Hitzaldia: 'Ez dut zigortu nahi'. Nerea Mendizabal psikopedagogoak eskainiko du. Maitasunez Hezi taldeak antolatuta, Kultur Etxean.

**20:00** Hitzaldia: 'Laikoak eta elizaren etorkizuna'. Jesus Martinez Gordo teologian doktoreak eskainiko du, Musika Eskolan. Parrokiaren 300. urteurreneko ekin-tzen barruan.

## 16 EGUAZTENA

**18:00** Gurasoentzako formakuntza: 'Sexualitateari buruz solasean'. Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak, Elgoibar Ikastolako Guraso Kontseiluak eta Ongizate Sailak antolatuta. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 17 EGUENA

**19:30** Mahaingurua: 'Karakateren sekretuak'. Maite Maiora, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz eta Iban Murua. Morkaikok antolatuta, Musika Eskolako auditorioan.

## 18 BARIXAKUA

**17:30** Txaranga txikia. Musika Eskolak antolatuta.

**20:00** Kontzertua: Ermuko Pispillu abesbatza. Parrokiaren 300. urteurreneko ekin-tzen barruan. San Bartolome parrokian.



BARREN

**Jarri ezazu zure publizitatea BARREN astekarian**  
**edo**

**[www.barren.eus](http://www.barren.eus) webgunean**

**943 744 112**

**Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR**



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

**Guardiak**

09:00 - 22:00

- 11 Barixakua YUDEGO
- 12 Zapatua ORUESAGASTI
- Goizez: Etxeberria
- 13 Domeka ORUESAGASTI
- 14 Astelehena BARRENETXEA
- 15 Martitzena IBAÑEZ
- 16 Eguaztena GARITAONANDIA
- 17 Eguena ETXEBERRIA
- 18 Barixakua IBAÑEZ

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara  
ETXEBERRIA (Elgoibar)  
Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)  
Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

\* Fernandez: Herriko enparantza 4,  
Garagartza (Mendaro)  
Tel.: 943 756 142

\* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)  
Tel.: 943 751 638

\* Oruesagasti: Kalebarren, 9  
(Soraluze) Tel.: 943 751 384

Zinea (Herriko antzokian)

'El hombre de las mil caras'

12 zapatua, 19:00 / 22:15 (VOS)

13 domeka 19:00

14 astelehena 21:30

'Printze txikia'

13 domeka, 16:30

'La reconquista'

(Ongarri zinekluba)

17 eguena, 21:30

barrena 11. EIBAR

**garajesGarcía.com**

KUPOI HONEKIN

**Negurako 8 segurtasun puntuen azterketa doan!**




www.garajesgarcia.com  
g.garcia@garajesgarcia.com

Abuzpetan: 943 820 697  
Kontagiaz: 943 202 214  
943 127 271

<p>15.300€</p>  <p><b>VW TOURAN 1.6 TDI ADVANCE 105</b> Motorra: 1.6 cm3 TDI Diesel Kilometroak: 50.000 Egoera: erabilia</p>	<p>12.500€</p>  <p><b>BERLINGO MULTESPACE 1.6 HDI TONIC 75</b> Motorra: 1.6 cm3 HDI Diesel Kilometroak: 60.000 Egoera: erabilia</p>	<p>15.300€</p>  <p><b>OPEL INSIGNIA ST 2.0 CDTI SPORT</b> Motorra: 2.0 cm3 CDTI Diesel Kilometroak: 120.000 Egoera: erabilia</p>
<p>15.500€</p>  <p><b>VW GOLF 1.6 TDI CR BSE BUSINESS</b> Motorra: 1.6cm3 TDI Diesel Kilometroak: 90.000 Egoera: erabilia</p>	<p>8.500€</p>  <p><b>PEUGEOT 307 + 1.4 HDI 68CV FAP</b> Motorra: 1.4 cm3 HDI Diesel Kilometroak: 80.000 Egoera: erabilia</p>	<p>14.500 €</p>  <p><b>FORD GRAND C-MAX 2.0 TDCI TITANIUM</b> Motorra: 2.0 cm3 TDCI Diesel Kilometroak: 80.000 Egoera: erabilia</p>

<p><b>LED 40" JVC LT-40VF53 TELEBISTA</b></p> <p>FULL HD - 600 Hz CMP 2x USB - 3x HDMI A+</p>  <p><b>379€</b></p>	<p><b>FAGOR BIKOTEA</b></p> <p>FAGOR FPV3340S GAINEKO SUKALDEA Biselatua - Touch control</p>  <p><b>449€</b></p> <p>FAGOR 8H175 BX LABEA 60 Litroko edukiera Aqualisis bidezko garbiketa A</p> 	<p><b>SIEMENS WT46E3F4EE LEHORGAILUA</b></p> <p>7 kiloko edukiera Kondentsazioa B</p>  <p><b>485€</b></p>
---	--	--

Dendako prezioak

**Hartu aurrea gabonei**

**MILAR BIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)



Iñigo Lamelas

## Jose Luis Azpillaga



Gabon zahar hartakoa ikarragarria izango zen. Pello ziur zegoen. Denak ahoz zabalik geratuko ziren zalantza izpirik gabe. Denek onartu beharko zuten berarena izan zela su-festa ikusgarriena.

Urteak ziren etxe aurreko plazan Urte-zaharretako kanpaien ondoren suzko erroberen espektakulua egiten zela. Bizilagun batzuen senide valentziar batzuk hasi ziren horretan. Gabon zahar gaueko afariaren ondoren, justu hamabiak jo ostean, plazara jaitsi, kaxa moduko batzuk jarri, sua eman eta izugarriko su-festa hasten zen: kolore guztietako suziriak ateratzen ziren kaxen barrutik, hainbat soinu egiten zutenak, etxepeko guztiak lehiotik begira zeudela. Su-ikuskitzuna bukatu ostean, txalo-zaparrada jotzen zuten auzokoez esker onez. Eta horrela urtea joan eta urtea etorri.

Pello liluratuta egoten zen suei begira, eta amets egiten zuen berak ere zerbait egin zezakeela noizbait. Ospe eta protagonismo-

goseak zirikatuta, urte hartan prest izango zuen bere espektakulua.

Iritsi zen Gabon zahar hura; afaldu zuen bere familiarekin; atera ziren valentziarrak eta egin zuten bere jarduna; bukatutakoan, plaza erdira jaitsi eta bere ikuskizunari ekin zion Pellok. Soka bati loturik zuen suziriari su eman eta jiraka ekin zion bere inguruan, gero eta azkarrago eta gero eta gorago eraginez. Soinu bitxia ateratzen hasi zen su-ziria eta suzko hari modukoak jaurtitzen, ur-zurrustak bezalakoak, lurrera iritsitakoan bote txikiak egiten zituztenak. Halako batean, gauza harrigarri bat gertatu zen: Pello lurretik altxatzen hasi zen, poliki-poliki airean goruntz, aingeru bat bezala, berak sokari eragin eta sua jaurtitzen jarraitzen zuen bitartean. Hamabi bat metro altxatu zenean, su-txinpartak moteltzen hasi ziren eta Pello pixkanaka-pixkanaka jaisten hasi zen, goxo-goxo lurreraino iritsi arte. Bizilagunak, harri eta zur, txaloka eta bibaka inguratu zitzaizkion, zorionak ematera.

Harrezkero valentziarrak ez ziren gehiago etorri Gabon zaharretan.

*'Su-ikuskitzuna bukatu ostean, txalo-zaparrada jotzen zuten auzokideek'*



## *Milagros Gonzalez Montoya*

2016ko azaroaren 4an hil zen, 88 urte zituela.

***Zure mina gordea, agerian adorea,  
zu ezagutu izana guretzat ohorea.  
Ez agurrik, ez adiorik,  
gero arte baizik***

Sendiak



## *Jesus Mª Ansola Zigorruga*

2016ko azaroaren 4an hil zen.

Familiaren izenean, eskerrik beroena gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.

Bere aldeko meza ospatuko da hilaren 13an, domekan, 12:00etan hasita, Eibarko San Andres parrokiari.



## *Victorio Agote Berasaluze*

2016ko urriaren 27an hil zen, 78 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *Jose Antonio Arrieta Etxaniz*

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.***

2016ko urriaren 26an hil zen, 93 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Olentzerori bisita egitera

# MIRANDAOLARA FAMILIA IRTEERA

Abenduaren 4an, domeka  
Ardien mundua ezagutu: ukuilura bisita, gazta dastaketa...



Izen ematea: azaroaren 14tik (16:00etatik aurrera) azaroaren 21era  
Ludotekan edo Elgoibarko Izarraren bulegoan (ordainketa eskudirutan).

Prezioa: 12€ (bazkideek 10€)

Ez dira plazak erreserbatuko. Izen ematea behin betikoa izan dadin,  
izen emate fitxa beteta eta ordaineka eginda egon beharko da.  
Pertsona bakoitzak familia bakarraren izen ematea egin ahal izango du.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURAREN SAIALA  
Hezkuntza Politikako Sailburuordetza